

D. XABIER ETXEBARRIA | Badira zenbati urte ikastetxeko gurasoak euskara ikastaroren bat eskatzen ari zirela eta eskaera horri erantzuteko asmoz 2007/08 ikasturtean Hobetuz ikastaroa antolatu dugu. Ikastaro honek bi helburu nagusi ditu: Lehen Hezkuntzan euskara maila hobetzea bere osotasunean (mintzamina, entzumena, idazmena eta irakurmena) eta Dbh-en Hizkuntza Eskolako lehenengo zikloko azterketa prestatzea.

Ikastaroaren izenak berak dioenez "hobetuz" ikastetxearen asmoa beti izan da kalitatezko heziketa ematea, eta ikastaro berri honek izan duen arrakasta kontutan izanik 2008/09 ikasturterako ikastaroaren ordu kopuruak handitzea aztertzen ari gara.